ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko ekainaren 22a, astelehena • 71 zk.

## II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

### AHOLKULARITZA JURIDIKOA

**217/2026 prozedura arruntean epea jartzea**

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 1. sekzioan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (217/2026 zenbakiko prozedura arrunta) izapidetzen ari da; ****4567*X IFZ duenak aurkeztu zuen errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026ko urtarrilaren 23ko erabaki baten kontra (2026ko apirilaren 1eko ALHAO, 39. zenbakia), zeinaren bidez behin betiko onetsi baitziren Vitoria-Gasteizko Udalaren 2026ko aurrekontu orokorrak, baita bere menpeko erakunde autonomo eta sozietate publikoenak ere. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikuluaren ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ekainaren 12an

*Udal legelaria*
*RICARDO SOLAUN GONZÁLEZ*



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.06.22 06:32:35 Z